



**HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**  
**GRADU AMAIERAKO LANA**  
**2016/2017 ikasturtea**

**HAURREKIKO ABUSU SEXUALEN DETEKZIO GOIZTIARRA  
ETA PREBENTZIOA AHALBIDETZEN DUEN BERRIKUNTZA  
PROIEKTUA**

**Egilea: Maitane Urizar Elorza**

**Zuzendaria: Eneko Tejada Garitano**

**Zuzendarikidea: Urtza Garay Ruiz**

**Leioan, 2017ko Maiatzaren 31n**

## AURKIBIDEA

Laburpena.....	2
1. Sarrera .....	3
2. Marko teorikoa .....	3
2.1. Haurtzaroko abusu sexualen (HAS) definizioa.....	3
2.2. Abusu sexual motak .....	4
2.3. Haurtzaroko abusu sexualen prebalentzia .....	5
2.4. Erasotzailearen perfila.....	7
2.5. Haurren eskubideak eta HAS-ari buruzko azterketa judiziala.....	8
2.6. Prebentzioaren beharra .....	10
3. Eskuartzea: “Jornadas Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI), una aproximación a la prevención” I. Jardunaldiak eta “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” online ikastaroa.....	11
3.1. Sarrera.....	11
3.2. “Jornadas Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI), una aproximación a la prevención” I. Jardunaldiak.....	12
3.2.1. Helburua.....	12
3.2.2. Jardunaldien deskribapena.....	12
3.2.3. Parte-hartzaileen balorazioaren azterketa.....	13
3.2.3.1. Helburua .....	13
3.2.3.2. Metodologia eta lagina .....	13
3.2.3.3. Emaitzak .....	13
3.3. “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” online ikastaroa ..	15
3.3.1. Helburua.....	15
3.3.2. Parte-hartzaileak .....	15
3.3.3. Ikastaroaren deskribapena.....	16
3.4. Ikastaroaren balorazioa .....	20
3.4.1. Helburua.....	20
3.4.2. Metodologia eta lagina.....	20
3.4.3. Emaitzak.....	21
4. Ondorioak.....	25
5. Erreferentzia Bibliografikoak .....	27
6. Eranskinak	

## **HAURREKIKO ABUSU SEXUALEN DETEKZIO GOIZTIARRA ETA PREBENTZIOA AHALBIDETZEN DUEN BERRIKUNTZA PROIEKTUA**

**Maitane Urizar Elorza**

UPV/EHU

Nahiz eta 10 umetatik hiruk abusu sexuala pairatzen duen, gai honi buruz dauden ikerketak, informazioa eta formazioa eskasa da gaur egun. Hau horrela izanik, aurkezten den Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia profesionalen eta etorkizuneko profesionalen haurren kontrako abusu sexualen formazioa eta detekzio goiztiarrerako baliabideak eskaintzea da. Horretarako bi esku-hartze garatu dira: “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil” I. Jardunaldiak eta izenburu bereberko online ikastaroa. Jardunaldietan profesional, etorkizuneko profesional eta interesdun pertsonen beharrak identifikatu ziren. Horiek guztiak kontuan izanik online ikastaroa planifikatu eta garatu zen, mundu guztiko eta hainbat jarduera profesionaletako 243 pertsonen hartu zuten parte. Ikastaroaren azken erronka sostengu sarea eraikitzeke oinarriak zehaztea izan da.

*Haurtzaroko abusu sexualak, prebentzio-baliabideak, sostengu sarea, prebentzio-formazioa*

Aunque hoy en día tres de cada diez niños/as sufren abusos sexuales, los estudios, información y formación respecto al tema es escasa. Siendo esto así, el objetivo final de este Trabajo de Final de Grado es proporcionar formación y herramientas para la detección temprana del ASI y disminuir así las posibles consecuencias físicas y psíquicas del trauma. Para ello se han llevado a cabo dos intervenciones: las I Jornadas “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” y la formación online del mismo nombre. En las jornadas se identificaron las necesidades de profesionales, futuros profesionales y personas interesadas. Teniendo en cuenta todo lo anterior se planificó y desarrolló una formación en la que tomaron parte 243 profesionales de todo el mundo y diversa índole. El reto de la formación fue la creación de las bases para una red de ayuda y contención.

*Abuso sexual infantil, herramientas de prevención, red de contención, formación de prevención*

Although 3 out of 10 children suffer from sexual abuse or harassment, research, information and training on this subject are still insufficient. Therefore, the main objective of this work is to provide professionals and future professionals with training and resources for early detection of children sexual abuse. To this end, two programs have been developed: “Breaking the secrets of childhood sexual abuse (ASI)” 1st Conference and online course. In the conference the needs of professionals, future professionals and people interested in the subject were identified with a strong demand to create a support network. Establishing the basis for that network has been the last challenge in the planning and development of the online course where 243 people from all over the world and different professional backgrounds took part.

*Childhood sexual abuse, prevention resources, support network, prevention training*

## 1. Sarrera

Gaur egun mundu mailako arazoa da hurrekiko abusu sexualen (HAS) tratu txarra. Nahiz eta 10 umetatik hiruk abusu sexuala pairatzen duen, gai honi buruz dauden ikerketak, informazioa eta formazioa eskasa da gaur egun. HAS-ek dakarten epe laburreko eta epe luzeko ondorio larriak direla eta, lan honen bitartez problematika honi ekarpen xume bat egin zaio bi esku-hartzeen bitartez. Helburu nagusia haur hezkuntzako garaian batez ere, detekzio goiztiarrerako formazioa eskaintzea da, honen bitartez etorkizuneko ondorioak era nabarian murriztu ahal izateko.

“Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” I. Jardunaldien bitartez UPV/EHU-n egin diren problematikarekiko lehenengo jardunaldiak egiteaz gain, etorkizuneko profesional, gaur egungo profesional eta interesdunen behar formatiboak ikertu eta antzeman ziren. Lortutako emaitzen bitartez “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” online formakuntza sortu eta burutu zen antzemandako beharrak lau bloke nagusitan banatuz: datu orokorrak, eremu judiziala, prebentzio eremua eta protokoloak. Ikastaroa sare baten egiturarekin diseinatu zen informazioaren elkarbanatzea eta etorkizuneko sarearen oinarriak zehazteko.

Ikastaroaren asebetetasun maila ebaluatzeko metodología mistoa erabili da. Arlo kuantitatiboak ikastaroan parte hartu duten pertsonen asebetetasun maila neurtzen dute, kualitatiboek aldiz barne sareko interakzioen azterketa azaltzen dute.

## 2. Marko teorikoa

### 2.1. Haurtzaroko abusu sexualen (HAS) definizioa

Haurtzaroko abusu sexualak (HAS) tratu txar azpi-mota bat dira (Muela, 2007). Intebik horrela definitzen du: heldu (berezkoa duen botere rola duenak) eta haurren arteko edozelako kontaktu edo elkarrekintza sexuala, zeinetan helduak haurra erabiliko duen beraren, haurraren edo beste baten estimulazio sexualerako (Intebi, 2007). Abusu sexuala adin txikiko batengatik ere eman daiteke, erasotzailea beste haurrarengatik adinez nagusiagoa denean edo botere harreman bat dagoenean (Intebi, 2007).

Lameiras, Carrera eta Fafídek (2008) azpimarratzen dute jolas sexual eta eraso sexualaren arteko bereizgarri nabarmenena hertsadura dela. Izan ere Save the Children (2001) elkarteak gogorarazten du abusu sexuala ezin daitekeela ulertu aldagai sexuala

soilik aztertuz, baizik asimetria horren barne dagoen botere harreman bezala. Botere garaitasun egoera batean dagoenak, nahiko ez lukeen zeozer egitera behartzen du beste pertsona, edozelako bitartekoa erabiltzen duelarik (xantaia, sedukzioa, etab.). Aldi berean botere hori ez dator ezinbestean lotuta adin desberdintasunagatik baizik eta beste faktore sozial batzuegatik (Save the Children, 2001). Elkartearen esanetan berdinaren arteko abusu sexuala kontuan hartu beharreko errealitate bat da, eta kontuan hartu behar da adin desberdintasuna oso txikia edo hutsa izan daitekeela (2001). Polok (2017) aipatzen du haurtzaroko abusu sexuala umiliatzeko eta manipulatzeko erabiltzen den botere gehiegikeria dela. Izan ere Hartman eta Burgess (1989, Muelak aipatua, 2007) adituek azpimarratzen dute intzestua izaera sexuala ez duen botere manifestazioa dela.

## **2.2. Abusu sexual motak**

Arestian aipatu den botere harremanaren aldagaia bereziki garrantzitsua da. Muelaren arabera (2007) hainbat ikerketek (Aguilar, 2009; López, Hernández, & Carpintero, 1995) adierazten dute, ematen diren bortxaketen % 20 adin txikikoek egiten dituztela. Aditu batzuek, aldiz, % 25-tik heren batera heltzen direla ohartarazten dute eta batzuetan familia barnekoak bezain sistematikoak direla (Carbajal, 2010), kasu askotan beraien biktimizazioa erreproduzitzen direla (Lameiras, Carrera, & Failde, 2008). Gainera erasotzaileen % 50-ak beren lehen eraso adin txikikoak zirenean burutu zuten (López, Hernández, & Carpintero, 1995, Muelak aipatua, 2007) eta adin txikikoen erasotzaile sexualen % 15-a 20 urte baina gutxiagoko gazteak dira (López et al., 1995; Lameiras et al., 2008). Intebik (2011) hain zuzen aipatzen du delitu sexualen erasotzaileekin lan egiten duten espezialistek nabarmendu zutela erasotzaile hauen aurrekariari arreta jarri izan balitzaie, ondoren gertatu ziren erasoak saihestu ahal izango liritekeela.

Aipatu beharra dago abusu sexuala kontaktuarekin edo kontaktu gabe izan daitekeela. Hau da, exhibizionismoa edo haurra ilegala den edozein jardura sexualetan parte hartzea bultzatzea, abusu sexuala ere badela (López et al., 1995, Muelak aipatua, 2007). Are gehiago Aguilarren esanetan (2009), exhibizionismoak haurraren ondoan klinikoko larriak sortu ditzake. Beraz, kontaktu gabeko abusu sexualari dagokionez hainbat datu aipatu beharra dago. Pulidok eta Flechak (2009) argitaratutako ikerketan adierazten denez, pornografia deskargen % 50 haurrekiko abusu sexualak dira. “Internet Safety Survey” (2001) ikerketan aztertu zenez (Pulido eta Flecha, 2009) AEB-tako 5 neskatuetatik batek online eskaera sexualak jasotzen ditu eta hauetatik oso gutxi

salatzen ditu. Era berean Espainian burutu zen *Seguridad Infantil y costumbres de los menores en Internet* (2002, Pulidok eta Flechak aipatua, 2009) ikerketak azpimarratzen duen datua da adin txikikoen % 44 jazarpen sexuala pairatu dutela Interneten. Elkarrizketatutako neskek adierazten zuten goitizen maskulinoekin sartu behar zirela foroetan, bestela jazarpen mezu asko jasotzen zituztelako. Beste alde batetik Pulidok eta Flechak (2009) azaltzen zuten *grooming* eskaerak ezezagunek egiten dituztela baina baita haurren ezagunek ere, hurrengo lerroetan ikusiko denez datu hauek erasotzaileen datuekin bat egiten dutelarik.

### **2.3. Haurtzaroko abusu sexualen prebalentzia**

Haurtzaroko abusu sexualen irakurketa zehatza egitea zaila da salatzen diren kasu kopurua txikia delako. Sharmak (2011) adierazten duenez, babes zerbitzuak haurtzaroarekiko abusu sexualen kasuen % 10 ezagutzen dituzte, eta erasotzaile gehienak ez dira abusotzaile sexualak izateagatik kondenatuak izan. Adituek adierazten dutenez (Sharma, 2011; Muela, 2007; Aguilar, 2009) haurtzaroko abusu sexualak egoera ekonomiko eta sozial guztietan ematen dira. Baina maila ekonomiko altuetan Haurtzaroko Babes Zerbitzuek zailago izaten dute egoerak detektatzeko (Pereda, 2016).

Esan bezala oso kasu gutxi salatzen dira beraz haurtzaroko abusu sexualen intzidentziaren irakurketa egitea zaila da (Lameiras et al, 2008). Haurtzaroko abusu sexualen prebalentziari dagokionez, emakumeen kasuan % 7-tik % 36-rako datuak daude eta gizonen kasuan % 3-tik % 29-ra (Bouvier et al., 1999; Briere & Elliot, 2003; Finkelhor, 1994; Haj-Yahia & Tamish, 2001; López et al., 1995; Tang, 2002, Muelak aipatua, 2007). Finkelhorrek egindako 19 ikerketen gaineko berrikuspenean (1986; Muelak aipatua, 2007) neskatoen kasuan portzentuak % 6-tik % 62-ra ziren eta mutikoen kasuan % 3-tik % 31-ra. Portzentuen edo emaitzen desberdintasunak ikerketetan erabilitako metodologia desberdinengatik da (Muela, 2007); izan ere aditu batzuek ez dute exhibizionismoa abusu sexualtzat jasotzen.

Estatu espainolari dagokionez, ikerketa gutxi batzuk egin dira, horietatik lehenengoa Félix Lópezek egin zuen (López et al., 1995, Muelak aipatua, 2007). Aditu honek plazaratutako emaitzek adierazten dute Espainiako neskatoetatik % 22-ak eta mutikoetatik % 15-ek abusu sexualak pairatu dituztela 17 urte bete baino lehen. Aguilarrek (2009) adierazten duenez Reina Sofía Zentroak 2004-n eta Bartzelonako

Unibertsitateak 2001-2002-n burututako ikerketek antzeko emaitzak eskuratu zituzten, azken honetan deigarria suertatu zelarik penetrazio tasa altua.

Euskal Erkidego Autonomoari dagokionez ikerketa bakarra burutu da, 2002 urtean. Bertan azaleratzen den HAS prebalentzia maila % 22,3 da eta ikertutako gazte hauetatik % 5,6-k abusu sexual larria jasan dute (Lameiras et al., 2008). Datu hauek Peredak (2016) burututako ikerketa metanalitikoagatik baieztatuak dira. Aditu honek adierazi zuen populazio espainolaren % 10-20ak haurtzaroko abusu sexualak pairatu dituela, orokorrean 13 urte bete baino lehenago. Horretaz gain aipatzekoa da, abusua jasan eta kontatu duten gizonezkoen % 3-ak eta emakumezkoen % 9-ak bakarrik jarri dira profesional batekin kontaktuan eta gizonezkoen % 4ak eta emakumezkoen % 7-ak egin dute salaketa (Priebe eta Sveiden, 2008, Peredak aipatua, 2016). Izan ere Noguerolek (1997; Guerricaechevarriak aipatua, d.g.) adierazten duenez sarri abusu hauek eremu familiarrean ematen dira eta haurrak ezgai sentitzen dira kasuok salatzeke.

Ullmanen berrikusketan (2001, Peredak aipatua, 2016) adierazten da HAS jasan duten bizirauleek helduak izate arte ez dutela kontaktzen (% 42-75) edo ez dute inoiz ez kontaktzen (% 28-60). Guerricaechevarriak (d.g.) ere jakinaren gainean jartzen du familia barneko abusu sexualen % 2 bakarrik ezagutarazten dela gertatzen ari den garaian. Gogoratu beharra dago, zailtasun edo ezgaitasun bat pairatzen duten hurrek abusu sexualak jasateko probabilitate bikoitza dutela (Muela, 2007). Hau dela eta, Peredak ohartarazten du estatistika ofizialek arazoaren dimentsio erreala gutxiesten dutela (Goldman & Padayachi, 2000, Peredak aipatua, 2016).

Abusuaren maiztasunari dagokionez Muelak (2007) dio aztertutako kasuen % 75 abusu errepikatua edo jarraitua dela. Lópezek (2014) ohartarazten du abusuaren errepikapenaren faktoreak ondorioetan duen edo izan dezakeen eragina. Izan ere HAS-en biktimek ez dituzte soilik berehalako ondorio larriak pairatuko oinarrizko jokaeran eta kognizioan eragina izango dutenak (Aguilar, 2009). Ahatik norberaren parte bihurtuko dira, identitate eta pertsonalitatean eraginez, pertsonaren garapena eta bizi kalitatea nabarmenki kaltetuz (Aguilar, 2009). Intebik (2011) esaterako, trauma psikiko latzenetarikotzat baloratzen du, nortasunaren eraikuntzan duen eragina nabarmenduz.

Biktimen adin tarteari dagokionez, gaian aditua den Irene Intebik (2011) 1993-ko ikerketa bat aipatzen du zeinetan haur biktimizatuen % 23,2 0-5 urte tartekoak ziren eta

% 48,5 6-11 urte tartekoak. Hala ere, memoriarekiko ikerketek adierazten dutenez (Muela, 2007), haurtzaroan abusatua izan diren % 38-ak ez du helduaroan gertaera gogoratuko, nahiz eta abusuaren ondorioak pairatu ditzaketen berdin-berdin. Beraz egoera hau haur txikiekin ere eman daitekeenez, Muelak abusu sexualen intzidentziaren adin tarte baxuagoa izan daitekeela ohartarazten du (2007).

#### **2.4. Erasotzailearen perfila**

Erasotzaileei dagokionez, % 80-92ak gizonak dira, orokorrean adin-erdiko gizonak eta maiz familiarrak edo umearen ezagunak (Madansky, 1996; Noguero, 2005, Guerricaechevarriak aipatua, d.g.). Kasuen %65 tik % 85ra erasotzailea familiakoa, ezaguna edota hauraren konfiantzazko pertsona da. Kasu hauetan abusu sexuala epe luzean ematen da eta ez da indarkeriazko jokaerarik gertatzen (Echeburúa & Guerricaechevarría, 2000; Guerricaechevarría, d.g.). Aguilarrek (2009) bere ikerketan ondorioztatzen du gurasoen banaketa prozesua eta aita erasotzailearen rolean egoera ohikoen bezala. Konexio hau loturik geratzen da abusuaren jarraitasun eta larritasunari, era berean salaketaren zailtasuna areagotzen du (Aguilar, 2009). Modu berean aipatu beharra dago intzestu kasuetan, koitua oso fase aurreratuan ematen dela (Barudy, 1998, Muelak aipatua, 2007). Izan ere Intebi (2011) azaltzen duenez, abusu ohikoenak hurreratze sexual errepikatuak eta kronikoak dira, konfiantzazko edo botere harreman batez baliatuz. Are gehiago, haur gehienek ez dute zantzu fisikorik eta abusia lehenengo gertaeratik hainbat hilabete edo urteren ostean antzematen da (Vázquez Mezquita eta Calle, 1997; Echeburúa & Guerricaechevarriak aipatua, 2000).

Adituek azaltzen dutenez ez dago erasotzailearen perfil zehatz bat. Oso kasu gutxitan dira gaixotasun mentalak dituzten pertsonak. Horrez gain, kultura eta maila sozial eta ekonomiko guztietan ematen denez, ezin daiteke perfil zehatz bat ezarri (Intebi, 2011). María Cecilia López (Urdinez, 2017) adituak azaltzen duenez profesionalki gailurtu diren gizonak izan daitezke, hiritar modelo bezala antzemanak, orokorrean heterosexualak, jatorrak, adin-erdikoak, lirainak eta hurrekin karismatikoak; abusatzaile batengatik espero daitekeen justu kontrakoa. Izan ere, gizarte edo ikuspuntu sozial batetik, itxura huts bakoak izan ohi dira. Lehen esan bezala amak babes figura nagusiak dira, adituek azaltzen dute hauek ere biktimak direla, “endredatzen dituzten aktore gorenaren biktimak” (Urdinez, 2017; Intebi, 2011).



## 2.5. Haurren eskubideak eta HAS-ari buruzko azterketa judiziala

Hurtzaroko abusu sexualak beti existitu dira, nahiz eta orain gutxi arte ez den era zientifikoan aztertu (Muela, 2007). Are gehiago, Freud eta Tardieu XIX. mendean egoera hauek agertarazi zituzten adituek bazterketa pairatu zuten (Muela, 2007). Freud-ek argitaratutako artikuluek ziotenez, histeriaren oinarria hurtzaroan pairatutako abusuarekin zuzenean lotzen da (Freud, 1896/2006; Muelan, 2007). Beste alde batetik Tardieuk (Intebi, 2011) agertu zuen, epaitegi frantsesetan epaitutako bortxaketa saiakera edo kasuen % 75, 16 urte baino gutxiagoko pertsonetik ziren, gehienak 4-12 urte bitarteko neskatuei hain zuzen (Intebi, 2011). Beranduago Tardieuk ez bezala, Freudek baieztapenok ezeztatu zituen abusu gehienak errealak baino, imajinatuak zirela esanez. Ideia hauek eragin handia izan zuten ondorengo belaunaldiko psikoanalista eta psikiatregan (Muela, 2007). Tardieu eta Freud-en garai berekoa da, 1874koa, Mary Ellen Wilsonen kasua. Ume honen kasua haurren eskubideen aitzindaritzat hartu ohi da, New Yorkeko hirian lehenengo aldiz onartuak izan zirelako haurrekiko tratu txarrak (Aguilar, 2009). 9 urteko haur honek tratu txar fisikoak eta psikologikoak jasan zituen, baina prozedura judiziala ez zen pertsona edo ume gisa zituen eskubideengatik eman, baizik animalia erreinuaren barne kokatu izanak bideratu zuen bere defentsa eskubideak (Aguilar-Cárceles, 2009; Pulido eta Flecha, 2009). Izan ere XX. mendeko bigarren erdialde arte ez zen haurren kontrako tratu txarren definizio zehatzik eman. Gai honetan aitzindari Henry Kempe izan zen, 1962. urtean burututako “haurraren aurkako tratu txar eta jipoituaren sindromearen” ikerketarekin (Baita eta Moreno, 2015). Haurren Eskubideen Deklarazioa 1959. urtean onartu zen, 1924. urteko Ginebrako Haurren Eskubideen Deklarazioan oinarriturik. Baina ez da 1989. urte arte Haurren Eskubideen Konbentzioa onartu. Azkenaren eta aurrekoen arteko desberdintasun nagusiak hauek dira: bigarrenak haurrak eskubideen subjektu eta ez objektu bezala onartzen ditu, eta konbentzio bat sinatzea loteslea da. Hau da, haurrak eskubideen subjektuak dira eta helduek edo estatuek betekizunak dituzte beraien eskubideen errespetuan.

HAS oso kasu gutxi salatzen dira hala ere, Estatu Espainolean 2015-eko Barne Ministerioiko datuen arabera, haurren kontrako 10 jazarpen kasu salatzen dira egunero (EuropaPress, 2017). Nazioarteko ikerketen (Intebi, 2011) arabera erasotzaileak nagusiki aita-ordeak edo aitak dira, eta amak babes figura. Beraz intzestu kasu baten

salaketan bi epaitegik hartzen dute parte: penalak abusuaren kasua darama, eta zibilak dibortzioa edo banaketari dagokiona.

Lehen aipatu den bezala erasotzaileak ez dira imajinatzen diren pertsona antisozialak, are gutxiago familia barruan ematen diren kasuetan (Intebi, 2011). Ohikoa izan ohi da erasotzailea pertsona dibertigarria, profesional bikaina eta umeez arduratzen den aita perfektu gisa azaltzea (Intebi, 2011). Horrela ezaugarri positibo hauei heldu eta haur baten arteko hurbilketa sexualak sorrarazten duen atsekabea gehitzen bazaio, kasu askotan umeez eta amek emandako testigantzak faltsutzat edo gezur gisa hartzen dira (Intebi, 2011). Paul Bernard edo Brouardel XIX. mende erdialdeko adituek adierazten zuten, intzestu kasuetako aitei erreferentzia eginez, hezkuntza jasoko gizonak zirela eta familia aita zoragarriak izan ohi zirela (Intebi, 2011).

Estatu espainoleko egoera judiziala Save the Children bezalako elkarten edo Europar Komisioaren (Borraz, 2017) oharpenak ekarri ditu. *La justicia española frente al abuso sexual infantil en el entorno familiar* (2012) dokumentuan irakur daitekeenez, Zuzenbide Administrazioak kasuok behar beste ikertu gabe artxibatzeko joera du haurrak babesgabetasun eta arrisku egoera larrietan utziz. Era berean, arestian aipatu bezala, salatzen duen babes figura eta haurra ez sinesteko ohitura dagoela eta parte hartzen duten ekipo profesionalaren espezializazio eza (ekipo psikosozialak, fiskaltza, etab.) salatzen du dokumentuak (Save the Children, 2012).

Infancia Libre Elkartek (Sevilla, 2016) salatu ohi duenez, arlo zibilean zaintza tutoretza eta bisita erregimenen inguruko erabakiak hartzen dira prozesu penala oraindik zabalik dagoenean (Save the Children, 2012). Epaiaketa zibil eta penaletan oso ohikoa da SAP-aren (“Síndrome de Alienación Parental”) erabilera, komunitate zientifikoarengatik eta haurtzaroko abusu sexualetako espezialistengatik ukatutako sindromea (Dora, 2016). Síndrome hau Richard Gardner pedofiliagatik kondenatutako psikiatrak sortu zuen, elkarte pro-pederastia ugariko kidea, bere garaian diru asko irabazi zuen pederastia epaiaketa peritu bezala jardunez (Dora, 2016). Are gehiago, sendatzeko ez da mediku tratamendu bat behar, baizik penala, haurra amarengandik eta amaren familiarengandik urrunduz (Dora, 2016). Síndrome hau askotan erabilia izan da, babes figurari zaintza tutoretzak kentzeko eta bisita erregimenak desobeditzeagatik isun handiak jartzeko (Dora, 2016). Horren adibide ugari ikus ahal izan ziren UPV/EHU-n burututako “Rompiendo el secreto del Abuso Sexual Infantil” jardunaldietan María

Sevilla txostengilearen eskutik (2016). Zuzenbide ikuspuntuari jarraituz, María Naredo Save the Children-eko ikertzaile juristak egindako hitzaldia berreskuratuko da, Xilema fundazioak antolatutako *III Jornadas de protección a la Infancia* egindakoa (2017). Ikertzaileak adierazten zuenez, garrantzitsua litzateke HASk ez soilik arazo politiko eta sozial bezala ulertzea, baizik giza eskubide urraketa gisa. Hau da, haurrak ez izatea politiken onuradun baizik eta eskubideen titular, alegia, HASk giza eskubideen urraketa larri bezala ulertzea. Estatuaren erantzukizuna arazo sozial edo politiko baten aurrean eta giza eskubide urraketa larri baten aurrean berdina ez delako (Naredo, 2017).

Eremu judizialean gaur egun 3 babesgabetasun faktore daude Espainian: abusua lehen haurtzaroko ume batetan antzematea, erasotzailea aita izatea eta banaketa prozesu batean ematea, bereziki genero biolentzia egoera batetan (Naredo, 2017). Naredok aztertu zituen Entzutegi Probintzian aztertzen hari ziren 100 largespen kasuetatik, % 60-an fiskaltzak artxiboa baieztatu zuen behar beste ikertu gabe (Naredo, 2017). Estatu mailan oihartzuna izan zuen kasu batetan, ume batek epaitegi penalean artxibatua zuen kasuaren irekiera lortu zuen galtzerdietan grabagailu bat ezkutatu eta aitaren abusu sexualarekiko frogak lortuz. Epaitegi penalean kasua berreraiki bazen ere, aldi berean epaitegi zibilak bere aitarekin bisitak berrezarri zituen (Naredo, 2016). Aita salatua den kasutan oso garrantzitsua da salaketaren laguntza edo bateraketa interbentzio instantzia batetik (ospitale publiko bat, eskola, etab.) edo salaketa ama edo familia hurbiletik ez abiatzea. Etorkizuneko prozesu penalean dudarik ez izateko arrazoi gezurtiengatik. Izan ere gehienetan ematen den fiskaltzaren jarrera dela eta, defentsaren pisua (frogen eskaera, etab.) salaketa jarri duen figuraren gain dago (Naredo, 2017). Adierazgarria da hainbat frogen ukatzea egiten dela beharrezkotzat ez jotzeagatik, baina gero artxiboa argudiatzen da froga faltengatik (Naredo, 2017). Behin artxibatua berriz elkarketa ematen da gurasoa ez gaitzesteagatik eta hau gaitzestean, manipulazioa argudiatzen da (SAP) (Naredo, 2017). Azkenik Naredo ikertzailea den heinean datuok eta epaitegien egoera aztertzeke zailtasunak azaleratzen ditu, ez baitago datu publikorik, ikertzaileen edo hiritarren eskura (Naredo, 2017).

## **2.6. Prebentzioaren beharra**

Gizarte eta epaitegi eremuaren egoera kontuan izanda, ezinbestekoa da prebentzioa lantzea (Intebi, 2011; López, 2014). Horrela, prebentzioaren lehen pausua haurra entzutea eta sinestea da, hots, biktimen garapen egokirako lehen urratsa da hau

(Echeburúa & Guerricaechevarría, 2000). Nahiz eta haurren testigantza faltsuaren mitoak indarra daukan (Intebi, 2011), Epaitegi Gorenak (2016) familia barneko kasuetan oso gutxitan ematen dela baieztatu zuen. Honekin batera Intebik (2011) adierazten du eskolaurreko haurrek ez dutela behar besteko gaitasun kognitibo eta intelektualik helduen sexualitateko detailedun istoriorik asmatzeko eta are gutxiago hirugarren bat leporatzeko helburuarekin.

Bestalde, prebentzioari hertsiki lotuta daude protokolo ezberdinak. Horien artean nabarmendu beharra dago Eusko Jaurlaritzak 2016. urtean argitaratutako *Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoerentarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako* dokumentua. Bertan tratu txar mota ezberdinak antzemateko adierazleak agertzen dira, baina ez ditu tratu txar mota bakoitzari dagokionak banatzen. Aldi berean behin kasuak detektatuak direnean, profesionalak zer egin behar duen eta zer ez azaltzen du. Kasu bakoitzaren arabera jarduketak bereizita daude ere, baina ez du zehazten profesionalak nola jakin dezakeen hauetako zein kasutan aurkitzen den. Adibidez, erasotzailea gurasoa dela jakitean ea beste gurasoak abusuaren jakitun den, egoera hauetan egitekoa oso desberdina delarik.

Estatu espainolari dagokionez Gobernu Espainiarrak, Haur Behatokiarekin batera *Protocolo básico de intervención contra el maltrato infantil* (2007) argitaratu zuen, Autonomi Erkidegoek sortutako protokoloek oinarri bezala erabili behar dutena. Neurri orokorren barnean protokoloaren zabalkundea eta honen barne dauden profesionalen formazioa kontenplatzen da. Horren ardura Autonomi Erkidegoaren protokoloen garapen eta inplementazio zerbitzuaren gain dago. Era berean zerbitzu honen ardura da tratu txarrak salatzeko webgune eta telefono baten sorrera eta tratu txarren inguruko prebentzio eta kontzientziazio kanpainen sorrera. Azkenik sortutako protokoloak detekzioan parte hartzen duten profesionalak formatuak egon behar direla zehazten du eta zailtasunen bat pairatzen duten haurrentzako neurri bereziak kontenplatuta egotea.

### **3. Eskuhartzea: “Jornadas Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI), una aproximación a la prevención” I Jardunaldiak eta “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” online ikastaroa**

#### **3.1. Sarrera**

Ondoren garatutako eskuhartzea deskribatuko, azalduko eta aztertuko da. Eskuhartzea bi faseetan banatzen da: lehenengo “Jornadas Rompiendo el secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI), una aproximación a la prevención” I Jardunaldiak eta bigarrena, “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” online ikastaroa.

### **3.2. “Jornadas Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI), una aproximación a la prevención” I Jardunaldiak**

#### **3.2.1. Helburua**

Haurrekin harremana duten profesional, ikasle, guraso eta interesa luketen pertsonen zuzendutako HASari buruzko formakuntza txikia ematea eta gaiaren inguruan dauden formakuntza beharrak aztertzea.

#### **3.2.2. Jardunaldien deskribapena**

“Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” izenburupeko jardunaldiak antolatu ziren. Sekretua haurtzaroko abusu sexualen oinarria izaten da, horregatik hautatu zen izenburu hau. Deialdia kartel (ikusi 1.eranskina), WhatsApp, email eta sare sozialen bitartez zabaldu zen 345 pertsonen izena eman zutelarik. Beste pertsona batzuek streaming bidez jarraituko zutela komentatu zuten areto nagusian lekuri ez zegoelako (Madril eta Gasteizko jendea adibidez) (ikusi 2. eranskina). Adituekin kontaktuan jarri, hitzaldiak eta hegaldiak lotu, beren bila joateko furgonetak antolatu eta catering eta jardunaldi batzuk dakartzan alde teknikoak prestatu genituen (grabaketa zerbitzua, aretoaren eta streaming bidez jarraitzeko gelak erreserbatu, catering-a, etab.). Aldi berean Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendaritzarekin hitz egin genuen fakultateko ikasleei email bat bidali ziezaieten jardunaldien berri emanez.

Ekitaldiaren aurkezpena EHU-ko Irakasleen Unibertsitate Eskolako eta Arartekoaren bulegoko ordezkarien esku egon zen. Moderatzailea gaian aditua den Enrique Echeburúa Donostiako Psikologia fakultateko irakaslea izan zen. Lehenengo hitzaldia Pilar Polo psikologoak eta Vicki Bernadet fundazioko formazio eta sentsibilizazio saileko arduradunak eman zuen, “20 urte tratamendu integrala ematen hauren aurkako sexu-abusuen kasuetan” izenburupean (ikusi 3. eranskina). Bigarren hitzaldia María Sevilla Infancia Libre elkarteko kidea eta Madril eta Andaluziako errealitateetan adituak egin zuen, “zure abusatzailea, zure aita” izenburupean. Barajasen egon zen lainoarekin arazoak zirela eta, ezin izan zuen hegaldia hartu, bere parte-hartzea Skype programaren

bitartez kudeatu zelarik (ikusi 4. eranskina). Atsedendian “catering” bat eskaini zen Zigor Iturrieta “Txoriene” ETB1-eko sukaldaritza saioko aurkezlearen eskutik. Bigarren zatari dagokionez, lehenengo hitzaldia Aitziber Bañuelos gizarte hezitzaile eta Eraikiz elkarteko koordinatzaile nagusiaren eskutik izan zen “Haurren aurkako sexu-abusuen aurrean: 0 Tolerantzia. Indarkeriak ikusaraziz” txostenaren berri ematen. Bigarren hitzaldia Maite Sánchez gizarte langile eta ikertzailearen eskutik izan zen, “Sekretua irekitzen. Urgentziatzko neurriak haurren kontrako sexu-abusuen aurrean” izenburupean. Amaitzeko ondorio, proposamen praktiko eta saioaren itxiera Enrique Echeburúaren eskutik izan ziren.

### **3.2.3. Parte-hartzaileen balorazioaren azterketa**

#### **3.2.3.1. Helburua**

Jardunaldien harira HASren inguruan dauden beharrianak identifikatzea izan zen helburua. Diagnostiko honen helburua profesional, etorkizuneko profesional eta interesdunentzako formazio batek izan ditzakeen beharren azterketa izanik.

#### **3.2.3.2. Metodologia eta lagina**

Parte hartzaileei Jardunaldiak amaitzean jardunaldian jasotako informazioaren gaineko asebetetasun maila neurtzeko inkesta bat pasa zitzaien. Inkesta jardunaldietarako berenberegiz eraiki zen. 12 item zituen eta likert galdetegia zen (ikusi 5. eranskina). Adina, generoa, ikasketak, lanbidea eta HAS inguruan jasotako formazioaz (arautu eta ez arautua) galdetzen zitzaien. Aipatu bezala 12 item azaltzen ziren eta batetik (desados) seira (ados) baloratu behar ziren. Itemen bitartez jasotako formazioaz, formazioaren beharraz, jardunaldietan azaldutako informazioaz, sakontzeko behar eta nahiaz, protokoloen ezagutzaz, gaiarekiko elkarten ezagutzaz, prebentzio materialez, beste herrialdetako esperientziez eta gaiarekiko sare baten beharrez eta nahiez galdetzen zitzaien. Lagina 150 pertsonen osatu zuten. Laginatik % 37,33 profesionalak eta % 62,67 ikasleak ziren. Laginaren % 78,67 emakumeak izan ziren eta hauek % 57,63 ikasleak eta % 42,37 profesionalak. Gizonen artean aldiz ikasleak nagusi izan ziren, % 81,25 hain zuzen.

#### **3.2.3.3. Emaitzak**

Lehenengo itemari dagokionez (“creo que tengo la formación suficiente para actuar de forma correcta ante un caso de abuso sexual infantil (ASI)”), gizonaen artean %

37,51ak beren desadostasuna azaleratu zuten eta emakumeen % 60,17ak berdin (profesionalen datuekin bat egiten dutelarik, % 60,72). Aldiz gizonen % 34,38ak eta emakumeen % 13,56ak formazio nahiko zutela adierazi zuten. Bigarren itemari dagokionez (“considero que existe necesidad de formación para profesionales que pueden verse implicados en casos de ASI”) emakumeen % 98,31ak eta gizonen % 96,88ak beren adostasuna azaldu zuten. Antzeko pertzepzioa izan zuten ikasleek (% 97,87) eta profesionalak (% 98,22). Hirugarren itemari dagokionez (“conocía la información que se ha presentado en las jornadas sobre el contexto social y judicial que abarca el ASI”) emakumeen (% 59,32) eta gizonen (% 40,63) gehiengoek ez zuten informazioa ezagutzen, antzeko datuak azalerazten direlarik profesionalakiko (% 48,21) eta ikasleakiko (% 59,57). Soilik emakumezkoen % 12,71 eta gizonen % 21,88 informazioa ezagutzen zuten. Laugarren itemari dagokionez (“una vez conocidos los datos de ASI comentados en las jornadas me gustaría profundizar en el tema”) profesionalen % 96,43 eta ikasleen % 86,17 gaian gehiago sakontzea gustatuko litzaiekeela esan zuten. Izan ere bosgarren itemean ere (“opino que es muy importante saber los procedimientos actuales para actuar ante un caso de ASI”) emakumeen % 98,31 eta gizonen % 96,88k oso garrantzitsutzat jaso zuten prozeduren ezagupena. Seigarren itemari dagokionez (“conozco los protocolos existentes y sus contenidos para casos de ASI”) soilik profesionalen % 10,72-k eta gizonen % 18,75 protokoloak ezagutzen zituztela adierazi zuten. Zazpigarren itemari dagokionez (“me gustaría recibir información sobre aspectos judiciales y tratamiento social de los casos de ASI”) ikasleen % 87,23 eta profesionalen % 96,43 beren adostasuna adierazi zuten. Zortzigarren itemari dagokionez (“me gustaría tener conocimiento de cuáles son las entidades que ofrecen formación al respecto”) emakumeen % 90,67 eta gizonen % 93,76 baietza adierazi zuten kasu honetan ezezkoa % 0 izan zelarik bi sexuotan. Bederatzigarren itemari dagokionez (“me gustaría tener conocimiento del material de prevención existente en situación de ASI”) emakumezkoen % 95,77 eta gizonen % 100 baiezkoa adierazi zuten, ezezkoa emakumeen eta gizonen kasuetan % 0 eman zelarik. Ikasleen % 95,75 eta profesionalen % 98,22 berdina adierazi zuten. Hamargarren itemari dagokionez (“desearía tener conocimiento de cómo se trata o se gestiona en otros países los casos de ASI”) emakumezkoen % 81,35 eta gizonen % 87,50 baiezkoa adierazi zuten. Hamaikagarren itemari dagokionez (“considero que crear una red de apoyo a profesionales y otros interesados (familiares, etc.) es importante”)

ikasleen % 96,81 eta profesionalen % 98,21 adostasuna adierazi zuten, ezezkoa ez batek ez besteak adierazi ez zutelarik. Hamabigarren itemari dagokionez (“participaría en una red de apoyo y formación de casos de ASI”) emakumezkoen % 72,89 eta gizonezkoen % 81,26 adostasuna adierazi zuten, gizonen artean ezezkorik eman ez zelarik.

Laburbilduz, gaiarekiko nahiko formazio ez dutela uste dute partehartzaileek (profesionalen % 60,72 eta ikasleen % 52,13), gaia gehiago landu nahiko luketela eta gaiarekiko sare batetan parte hartzeko prest egongo liratezkela. Nabarmendu beharra dago inkesta erantzun zuten profesionalen artean % 98,22 gaiarekiko formazioaren beharra antzeman zutela, beharbada beren egunerokoan behar hori antzeman dutelako. Profesionalen % 96,43 gaian sakontzea gustatuko litzaieke, beraz konkretuki profesionalen emaitzak aztertuz, formaziorako proiektu baten bideragarritasuna ondorioztatu daiteke. Proiektu honek inkestaren emaitzak oinarri hartuz, lau atal nagusi izan beharko lituzke: HASen datuak, atal judiziala, prebentzio eremua eta protokoloak.

### **3.3. “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” online ikastaroa**

#### **3.3.1. Helburua**

Etorkizunean hurrekin harremana izango duten profesionalentzako, jardunean hari diren profesionalentzako eta interesdun pertsonentzako formazio bat garatzea. Ikastarotik eratorrita hausnarketan bitartez, gaiarekiko problematikari aurre egiteko HAS-ren inguruan sostengu sare bat sortzea helburu izango duena.

#### **3.3.2. Parte-hartzaileak**

Ikastaroa hurrekin harremana duten profesionalentzat prestatu zen, batez ere, haur eta lehen hezkuntzako irakasleentzat. Hala ere, hezkuntza graduetakoko ikasleei, guraso taldeei eta beste profesionalei ere eskaini zitzairen. Ikastaroan 243 pertsona inskribatu ziren. Horietatik % 91,36 emakumeak ziren, 222 hain zuzen (117 langile eta 105 ikasle) eta % 8,64 gizonak, 21 (8 langile eta 13 ikasle). Mundu guztiko pertsonak hartu dute parte, horrela EAEEko gain Nafarroa, Venezuela, Madril, Kantabria, Kataluña, Mallorca, Zaragoza, Murtzia eta Mexikoko profesionalek garatu dute ikastaroa. Gizarte integratioko, Psikologiako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Gizarte Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako ikasleez gain, gaur egun lanean ari diren irakasleak, psikologoak, gizarte langileak, gizarte hezitzaileak, erizainak, abokatuak,



orientatzaileak, begiraleak, medikuak, kazetariak, partzuergoko formakuntzako saileko kideak edo hurrekin harremana ez duten langileak topatu ditzakegu.

### 3.3.3. Ikastaroaren deskribapena

Ikastaroaren izenburua “Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil (ASI)” (<https://sostengusarea.wixsite.com/misitio>) da. Wix doako plataforman eraiki zen, tresna honek eskaintzen duen erabilgarritasuna eta praktikotasuna baloratu baitziren.

Webgunean topatzen den material didaktikoa beren-beregi sortu zen online ikastarorako. Horrela Jardunaldietan parte hartu zuten adituak elkarrizketatu ziren, besteak beste Enrique Echeburúa eta Pilar Polo. Gaiarekiko beste prestakuntza batean Madrileko egonaldia aprobetxatuz, Margarita García Marqués elkarrizketatu zen. García haur-psikologoa, AspaSI-ko burua eta orain dela 30 urte gaia lantzen duen aditua da. Era berean haur jazartu baten amaren testigantza jaso zen idatzi baten bidez eta grabaketa egin zen. Gaiaren ikerketa bibliografikoa egin zen ere bloke bakoitzeko testua osatzeko eta gaia aisa lantzen zuten esteka erabilgarriak bilatu. Jardunaldietan luzatu zen inkestaren emaitzetan oinarrituz, ikastaroa 4 bloke nagusitan banatzea erabaki zen: HASKiko datuak, irakurketa historiko eta judiziala, prebentzio arloa eta protokoloak.

Ikastaroa hilabete batetan zehar burutu zen, aste bat bloke bakoitzeko gutxi gorabehera. Aste santuko oporrak zirela eta bloke batzuk gehiago luzatu ziren azkenik apirilaren 3-tik maiatzaren 8ra gauzatu zelarik ikastaroa.

Ikastaroa dagoen webgunea ondorengo ataletan egituratzen da: “Curso”, “Sostengu Sarea”, “Nuestra Red”, “I. Jornadas”, “Noticias y Red social” eta “Contacto”.

“Curso” (ikusi 6. eranskina) izenburua duen estekan ikastaroa bera topatzen da. Online ikastaroa da eta lau modulu ditu. Moduluak hasi aurretik aurkezpen bideoa eta ikastaroaren deskribapen labur eta 6 helburuak azaltzen dira (Ikusi 7. eranskina).

Ondoren ikastaroa osatzen duten 4 moduluak daude: “El ASI en datos”, “Más allá de la justicia y figura protectora”, “¿Podemos prevenir el ASI?” eta “Protocolos de actuación”.

Modulu bakoitza azaldu aurretik esan beharra dago, modulu guztietako egitura berdina dela. Era honetan eta online ikastaroa dela kontuan izanda, parte-hartzaileei ikaskuntza

errazteko. Horrela modulu bakoitzean ondorengoa topatu du ikasleak: helburua, irakurtzeko derrigorrezko materiala, gaiari buruzko adituen bideoa, material osagarriak eta jarduerak. Horrez gain hasieran bloke bakoitzaren aurkezpen bideoak ikusi daitezke, landuko diren edukien aurrerapen bezala. Izenburuek hiperesteka baten bidez ikastaroko atal bakoitzera eramaten dute. Izenburu bakoitza astero aktibatu zen, lehen esan bezala gutxi gorabehera modulu bat egiten zelako astero.

Lehenengo modulua “El ASI en datos” (ikusi 8. eranskina) izenburupean gaien murgiltzeko lehen atala da. Bertan bloke guztietan mantendu den egitura bat agertzen da, azaldutako ordenean: blokearen deskribapen laburra, helburu espezifikoak, bideo labur bat, irakurri beharreko testu bat, material gehigarrirako estekak eta proposatutako jarduerak. Atal hau gaiaren sarrera bezala planteatua dago. Bideoan Pilar Polo eta Margarita García-ri egindako elkarrizketak ikus daitezke. Irakurri beharreko dokumentuan haurtzaroko abusu sexualen definizioa, adingabeko abusatzaileekiko datuak, biktimekiko eta erasotzaileekiko beste herrialdetako, Espainiako eta EAE-ko datuak, internet bidezko jazarpenekiko datuak, erasoan maiztasuna, eta gizarteak izan dezakeen eragina eraso hauekiko azaltzen da. Era berean, modu orokor batean abusua aurrera eramateko erasotzaileak erabili ohi dituen estrategiak azaltzen dira. Datu hauek irakurketa bibliografiko baten bitartez jaso dira. Ostean 10 esteka daude gehiago sakondu nahi zuenarentzat, gaiaren testuinguruan kokatzeko datu gehiago luzatzen direlarik. Azkenik gogoetarako 3 galdera proposatzen zaizkio parte hartzaileari, modulu guztietan errepikatzen den egitura mantenduz, horietako bat beti sareari lagundu edo ekarpena egiteari begira bideratua. Galdera bakoitzak hashtag bat du (#elASIendatos, #elASIendatosabusodepoder eta #elASIendatosreddeapoyo) eta hashtag-a hiperesteka baten bitartez “Nuestra Red” orrialdera bideratzen du. Gero azalduko den bezala, galdera hauek Band aplikazioaren bitartez erantzuten dira. Band aplikazioak berak hashtag-ka antolatzen dituelarik erantzunak.

Bigarrena, “Más allá de la justicia y figura protectora” modulua, bi zatitan banatuta dagoen modulu bakarra da, ulertteraza izateko horrela egituratu delako; “Más allá de la justicia” eta “Figura protectora”. “Más allá de la justicia” (ikusi 9. eranskina) aurreko moduluko egitura bera du: blokearen deskribapen laburra, helburu espezifikoak, irakurri beharreko testu bat, material gehigarrirako 5 esteka eta proposatutako jarduerak. Zati honetan ez da bideorik ezarri “Figura protectora” (ikusi 10. eranskina) atalean jarri

delako. “Más allá de la justicia” ataleko dokumentuan haurren eskubideen irakurketa historikoa egiten da eta honen ostean gaiaren gaur egungo egoera judizialaren irakurketa hainbat adituen datuak azaleratuz. Ondoren hausnartzeko 3 galdera luzatzen dira, dagokien hashtag-arekin (#lajusticia1, #lajusticia2 eta #lajusticia3). Hauetako azkena, aurreko atalean bezala aipatutako sarea sortzeari begira. Hiru galderen arteko bigarrenean hurrekiko errespetuzko praktika judizial bat agertzen da, Islandiakoa hain zuzen. Bigarren bloke honetako bigarren zatian, “Figura protectora”-n, atalaren azalpen laburra, helburu espezifikoak, aitarengatik abusatutako haur baten amaren testigantza jasotzen duen bideoa, irakurri beharreko testua eta hausnartzeko jarduerak ikus daitezke. Testua “Madres de Hierro” liburuaren hitzaurrea da, María Cecilia López adituak idatzia. Bertan gaur egun profesionalen eta gizartearen aldetik haurren babes figurek (amak izan ohi direnak) pairatu behar duten sinesgarritasun eza azalerazen da. Amaitzeko hausnartzeko 3 galdera luzatzen dira dagokien hashtag-arekin (#lasmadresdehierro1, #lasmadresdehierro2 eta #lasmadresdehierro3), bigarrena foroko kideekin feedback-a egiteko eskatuz eta hirugarrena lehen esan bezala, sarea sortzeari begira bideratua.

“¿Podemos prevenir el ASI?” (ikusi 11. eranskina) hirugarren blokearen izenburua da. Blokearen deskribapen laburra, helburu espezifikoak, bideo labur bat, irakurri beharreko testu bat, material gehigarriko 14 esteka, bi prebentzio esperientzia, prebentzio gida bi eta proposatutako jarduerak agertzen dira. Bideoan Enrique Echeburúa psikologo klinikoari eta Margarita García psikologoari egin zitzaizkion elkarrizketak ikus daitezke. Testua eta blokea bera lauretatik luzeena da, prebentzioaren atala interes gehien sortzen duen gaia delako. Irakurri beharreko dokumentuan hurrengo gaiak jorratzen dira: lekukotza faltsuen mitoak, prebentzio programa bat aplikatzerakoan jarraitu beharreko pausuak, haurtzaroan egiteko edo jarduera prebentiboa gauzatzeko jarraibideak, haurren garapen sexualaren barne dauden eta ez dauden jarreraren azalpena, arrisku faktoreak, abusuaren adierazleak (0 urtetik 21 urtera), behin errebelazio baten aurrean izanda jarraitu beharreko pausuak, abusuaren ondorio psikologiko, emozional eta fisikoak eta haur jazartuen izaera ulertzeko beharrezkoak diren akomodazio eta disoziazio kontzeptuen azalpena. Era berean azken bi kontzeptu hauek ulertzeko baliagarria izango den emakume heldu baten esperientzia, haurra zenean bere aitarengatik abusatua izan zena. Azkenik erasotzaileek biktimarekin erabili ohi duten jazarpen prozesu psikologikoa sakonago azaldu da. Material gehigarriaren barne Vinka

Jackson gaian aditua den psikologoak prestatutako hainbat infografia daude, haur hezkuntzako irakasle baten egunerokoan erabilgarriak izan daitezkeenak. Beste alde batetik Pepa Horno, Pilar Polo eta Margarita García adituen aholkuak jasotzen dituzten artikuluak eta elkarrizketak daude, batez ere lehen haurtzaroari begira. Eskaintako materialari amaiera emanez, haur hezkuntza garairako bi programa prebentibo eskaintzen dira. Blokearekin amaitzeko hausnartzeko 5 galdera luzatzen dira, bakoitza bere hashtag-arekin (#Prevención1, #Prevención2, #Prevención3, #Prevención4 eta #PrevenciónEnRed5). Aurrekoen egitura mantenduz, azkeneko galdera sarea sortzeari begira bideratuta dago. Aipatu beharra dago bi galdera ezagutzak elkarbanatzera bideratuak daudela, prebentzio kanpainak eta gaiarekiko elkarleen ezagutzaz behinik behin.

“Protocolos de actuación” (ikusi 12. eranskina) da laugarren modulua eta azkena. Bertan bloke guztietan mantendu den egitura agertzen da: blokearen deskribapen laburra, helburu espezifikoak, bideo labur bat, irakurri beharreko testu bat, material gehigarriko 5 esteka eta proposatutako jarduerak. Bideoa Oiane del Cura Bigarren Hezkuntzako irakasleari egindako elkarrizketa bat da zeinetan EAE-ko protokoloaren hainbat alderdiren inguruan hausnartzen duen. Honen ostean, irakurri beharreko dokumentua dago, EAE-ko protokoloaren laburpena. Protokolo hau euskaraz eta gaztelaniaz material gehigarrian eskaintzen da ere. Material gehigarrietako beste dokumentuak Buenos Aires probintziako gida bat, Kantabriako Autonomia Erkidegoko gida bat eta gurasoentzako Margenes y Vinculos fundazioak Gobernu espainiarrarekin batera argitaratutako gida bat dira. Amaitzeko hausnartzeko lau galdera luzatzen dira dagokien hashtag-arekin (#Protocolos1, #Protocolos2, #Protocolos3 eta #ProtocolosEnRed4). Lehenengo galderan, Txileko bi eskoletako barne protokolo bi eskaintzen dira eta laugarren galderan berriro ere, ikasitako guztia kontutan hartuz sareak nola lagundu dezakeen galdetzen da.

Jardueren garapenerako ezinbestekoa da “Nuestra red” (ikusi 13. eranskina) esteka. Webguneko atal honetan partehartzaileek beraien arteko komunikazioa era eraginkor eta seguruan egiteko aukera dute. Horretarako BAND aplikazioa erabili da. BAND sare sozial itxia eta doakoa da eta modulu bakoitzeko jardueretan agertzen zen gaiari buruzko gogoetak elkartrukatzeko erabili da. Horretarako atal honen goialdean Band aplikazioa erabiltzeko jarraitu beharreko pausuak azaltzen dira zehatz mehatz, lehenengo pausuan

aplikaziora eramaten duen hiperesteka duelarik. Azpian bloke bakoitza azaltzen da eta bakoitzaren azpian dagozkien hashtag-ak. Hashtag hauetako bakoitzak hiperesteka dute Band foroko modulu bakoitzera eramaten dutenak. Modulu bakoitzeko izenburuaren gainean aktibatuak zeudela gogorarazteko “activo” jarri zen asteak pasa ahala.

Moduluen deskribapena egin ondoren, webgunean agertzen diren beste estekak zehaztuko ditugu. Horrela “Cursos” eta “Nuestra red” estekez gain ondorengo beste lau hauek osatzen dute webgunea:

“Sostengu Sarea” (ikusi 14. eranskina) erlaitzan klikatuz formakuntzaren arrazoiak azaltzen dira, ikastaroaren izenburua euskara eta ingelesera itzulita azalduz.

“I. Jornadas” (ikusi 15. eranskina) erlaitzan klikatuz EHU-n burutu ziren jardunaldietako kartela agertzen da. Kartelaren gainean klikatuz Youtubera igo diren jardunaldien grabazioak ikus daitezke.

“Noticias y Red Social” (ikusi 16. eranskina) erlaitzan klikatuz @sostengusarea Twitterreko kontuaren historia ikus daiteke. Bertan argitaratzen hari dena jarraitu ahal izateko nahiz eta sare sozialean konturik ez izan.

“Contacto” (ikusi 17. eranskina) erlaitzan klikatuz dudaren bat edo kontsultaren bat egin nahi izatekotan luzatzen den helbide elektronikoa irakur daiteke.

Ikastaro osoan zehar bloke berri bat irekitzen zen bakoitzean email bat bidali zen gogorarazteko eta foro bakoitza zabaltzerakoan berdina egin zen.

### **3.4. Ikastaroaren balorazioa**

#### **3.4.1. Helburua**

Ikastaroaren balorazioa egitea, parte-hartzea eta iritziak aztertuz, sarearen lehen oinarriak zehazteko. Bi helburu daude: bata parte-hartzaileek ikastaroaren gainean duten asebetetasun maila neurtzea eta bestea ikastaroko barne sarean eman diren interakzioak aztertzea.

#### **3.4.2. Metodologia eta lagina**

Metodologia mistoa erabili da, datu kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartu dira eta lagina 243 pertsonen osatu dute. Arlo kuantitatiboa ikastaroan parte hartu duten

pertsonen asebetetasun maila neurtzen dute, kualitatiboek aldiz barne sareko interakzioen azterketa azaltzen dute.

Datu kuantitatiboak jasotzeko asebetetasun inkesta bat erabili da (ikus 18. Eranskina). Inkestak 15 item dauzka eta ikastaroan atal ezberdinak (materialak, sare ikuspegia, etab.) neurtzen ditu.

Bestalde azterketa kualitatiborako barne sarean aztertutako gaien inguruko kategoriak eta azpikategoriak zehaztu dira. Kategorien deskribapena ondorengo taulan (taula garatuta ikusteko 19. eranskina) azaltzen da:

Kategoria	Azpikategoria	Definizioa
DATOS	<ol style="list-style-type: none"> <li>#elASIendatos,</li> <li>#elASIendatosabusodepoder:</li> <li>#elASIendatosreddeapoyo:</li> </ol>	Haurtzaroko abusu sexualen inguruko datuen azterketa. Band aplikazioko modulu honetan 94 partaidek egin zituzten ekarpenak.
JUSTICIA	<ol style="list-style-type: none"> <li>#justicia1:.</li> <li>#justicia2</li> <li>#justicia3.</li> </ol>	Abusu sexualen irakurketa historiko eta judiziala aztertzen da. Modulu honetan 57 partaidek hartu zuten parte.
FIGURA PROTECTORA	<ol style="list-style-type: none"> <li>#madresdehierro1</li> <li>#madresdehierro2</li> </ol>	Amak babes figura gisa bizi duena aztertzen da. 57 partaidek hartu zuten parte.
PREVENCIÓN	<ol style="list-style-type: none"> <li>#PrevenCIÓN1,2,3,4,</li> <li>#PrevenCIÓNEnRed5</li> </ol>	HASen prebentzioaren barne dauden hainbat aldagai lantzen dira. 40 partaidek egin zituzten ekarpenak.
PROTOCOLOS	<ol style="list-style-type: none"> <li>#Protocolos1</li> <li>#Protocolos2</li> <li>#ProtocolosEnRed4</li> </ol>	HASaren inguruko protokoloen irakurketa kritikoa. 30 partaideren ekarpenak daude.

### 3.4.3. Emaitzak

Datu kualitatiboek dagokionez: lehenengo azpikategorian (#elASIendatos) parte-hartzaileen 38 komentarioetan oinarrituz aipagarrien iruditu zitzaizkien 3 datuak hurrengoak izan ziren. Lehenengoa, bortxaketen % 20 adin txikikoek burutzen dituzte eta erasotzaileen % 50ak beren lehen eraso adin txikikoak zirenean burutu zuten. Bigarrena, erasotzaileen % 65-85 haurraren familiakoa edo inguru hurbilekoa da eta hirugarrena gazteon % 44k internet bidezko jazarpen sexuala pairatu du. Bigarren azpikategoriari dagokionez (#elASIendatosabusodepoder) parte-hartzaileen 29 komentarioetan oinarrituz parte hartzaile guztiek abusu sexuala botere gehiegikeri

bezala antzeman zuten, aldagai sexuala bigarren mailako faktore bezala onartuz. Guztiek egin zioten erreferentzia adin txikikoen arteko abusuari. Gizartean diskriminazio desberdinak jasotzen dituztenek (genero edo arrazagatik) abusatua izateko izan dezaketen erraztasuna ere aipatu zen. Hirugarren azpikategoriari dagokionez (#elASIendatosreddeapoyo) parte-hartzaileen 33 komentarioetan oinarrituz parte-hartzaile guztien ekarpena norabide berean zihoan: gizartearen kontzientziazioaren bitartez gaia azaleratu, biktimizekiko sostengua, profesionalen formazioa, diziplinarreko jardutearen hobekuntza eta prebentzioaren lanketa informazioaren elkartrukatzaren bitartez.

“Una red de profesionales mejor formados para detectar el problema e intervenir de manera adecuada, fortalecimiento de la coordinación/cooperación interdisciplinar y profesionales de referencia para las víctimas y sus allegados.” (2. parte-hartzailea):

“Más allá de la justicia” kategoriari dagokionez ikastaroko parte-hartzaileek hurrengo ekarpenak egin zituzten. Lehenengo azpikategoriari dagokionez (#justicia1) parte-hartzaileen 32 komentarioetan oinarrituz, aldaketa ez litzateke aldaketa erradikal baten adierazle, beste alderdi garrantzitsu batzuk barne hartzen ez baditu.

“(…) para denominarlo cambio radical, tendría que ir acompañado de (...) trato adecuado a víctimas y personas queridas, protección de las mismas, educación en la prevención, formación de profesionales que tengan interacción con el menor y familiares (...) el cambio es multifactorial.” (24. parte-hartzailea)

Bigarren azpikategoriari dagokionez (#justicia2) parte-hartzaileen 29 komentarioetan oinarrituz, Islandiako praktika oso positibotzat baloratu zen nahiz eta gehiengoak dudak azaleratu zituen Espainian ezartzearen aukeraren aurrean. Hirugarren azpikategoriari dagokionez (#justicia3) parte-hartzaileen 32 komentarioetan oinarrituz, epe laburreko helburua formazio, dibulgazio eta sostengua izan beharko lirateke, azken helburu bezala lege eta protokoloen aldaketa eta profesionalen formazioa izan beharko lukeelarik.

“Es necesario crear una red de apoyo sobre este tema para poder estar formados adecuadamente y dar conciencia, así conseguir en el aspecto judicial una ley que proteja y de apoyo a las víctimas de abuso sexual (...)” (28. parte-hartzailea)

“Figura protectora” kategoriari dagokionez ikastaroko parte-hartzaileek hurrengo ekarpenak egin zituzten. Lehenengo azpikategoriari dagokionez (#lasmadresdehierro1) parte-hartzaileen 27 komentarioetan oinarrituz, inpaktu gehien sortu zuena amek daukaten sinesgarritasun eza, bai gizartearen aldetik bai profesionalen aldetik izan zen;

gehien gustatu zitzaiena gero eta ama gehiago salatzera ausartzen direla eta gehienak testuan aipatzen denarekin ados zeuden.

“Lo que me ha impactado es la referencia a la existencia del SAP para debilitar a las madres (...) Me gusta la entereza de la madre de hierro (...) que va adelante a pesar de todo. No estoy de acuerdo con los que se denominan profesionales, y permanecen al margen sin sensibilidades y sin empatía.” (4. parte-hartzailea) // Feedback: “Yo creo que el SAP y su aplicación práctica (...) no es más que un reflejo de la sociedad en que vivimos, de sus valores machistas (...) en los juzgados ni siquiera se avienen a dar cifras reales de los casos denunciados, sentencias emitidas y datos de los procedimientos (porque quedaría en evidencia su incapacidad y su negligencia). (...)” (10. parte-hartzailea)

Bigarren azpikategoriari dagokionez (#madresdehierro2) parte-hartzaileen 25 komentarioetan oinarrituz, sareak lehenik eta behin sinesgarritasun osoa eman beharko lioke testigantzei, bigarrenik sostengu eta laguntza eta hirugarrenik sare baten bitartez profesionalak eta amak elkartu zuzeneko kontakizun eta esperientziak izateko. Dibulgazio eta formakuntzaren beharra sostengu egokia eman ahal izateko askotan aipatu zen beharra zen.

“La red de apoyo puede ofrecer una gran ayuda a las madres y entorno (...) Paralelamente a la ayuda constante al menor (...) las madres menos instruidas, (...) la red de apoyo para ellas es imprescindible. (...) creo que la red de apoyo debe ofrecer un espacio divulgativo y formativo que cubra la actual carencia (...)” (22. parte-hartzailea)

“¿Podemos prevenir el ASI? ” kategoriari dagokionez ikastaroko parte-hartzaileek hurrengo ekarpenak egin zituzten. Lehenengo azpikategoriari dagokionez (#prevención1) parte-hartzaileen 24 komentarioetan oinarrituz, inork ez zuen profesional bezala HAS-en inguruko informazio jaso. Hala ere deigarria izan zen 3 parte-hartzaileen eskutik elkarbanatu zen informazio prebentibo ugaria (42 komentario).

“a pesar de haberlo intentado, no he recibido ninguna formación sobre el maltrato y/o abuso infantil como tal. Los diferentes cursos, todos ellos subvencionados por el Gobierno Vasco que he realizado, que en principio abordaban la violencia domestica e intrafamiliar, terminaron todos por ser cursos sobre la violencia de genero, olvidando a los menores la mayoría del tiempo o dejándolos en un segundo plano cual espectador. (...) Hablo como profesora (...) y me parece muy desesperante que a pesar de querer recibir una formación seria respecto al tema, parezca una misión imposible (...)” (6. parte-hartzailea)

Bigarren azpikategoriari dagokionez (#Prevención2) parte-hartzaileen 23 komentarioetan oinarrituz, parte-hartzaileek orokorrean ez zuten kanpainarik ezagutzen



eta ezagutzen zuten gutxiak interneteko bideoen bat zen, ez beraien ingurugiroan egindakoak. Hirugarren azpikategoriari dagokionez (#Prevención3) parte-hartzaileen 21 komentarioetan oinarrituz, ez zituzten elkarteak ezagutzen, soilik formakuntzan zehar aipatutakoak: Vicki Bernadet, AspaSI, Infancia Libre, Gure Sarea edo Garaitza. Laugarren azpikategoriari dagokionez (#Prevención4) parte-hartzaileen 19 komentarioetan oinarrituz, guztiak adituaren baieztapenarekin bat egin zuten. Bosgarren azpikategoriari dagokionez (#PrevenciónEnRed5) parte-hartzaileen 21 komentarioetan oinarrituz, informazioaren elkartrukea, dibulgazioa, kontzientziazioa, hurrekin harremana duten profesional desberdinen elkargunea sortu eta guraso eta IGE-rekin batera gaiarekiko ikastaroak sortu, bai profesional baina baita ere ikasleentzako izan zen iritzi orokorra.

“(…) seria buena idea organizar cursos-coloquio sobre la prevención para padres/madres (...). Solo seria necesario prepararlos y hablar con las AMPAS. El material, en teoría ya lo tenemos gracias al pedazo curro que ha hecho Maitane. También, hablar con el Berritzegune para ver si es posible impartirlos al profesorado en diferentes centros de la CAPV (...). Algunos de mis compañeros de trabajo, son los creadores de diferentes proyectos que ya funcionan dentro del sistema educativo en la CAPV como Bidelagun, el mas conocido posiblemente. Podría pedirles asesoramiento sobre como se formaliza un proyecto dentro de la red publica, hay varias subvenciones, (...)” (6. parte-hartzailea)

“Protocolos de actuación” kategoriari dagokionez ikastaroko parte-hartzaileek hurrengo ekarpenak egin zituzten. Lehenengo azpikategoriari dagokionez (#Protocolos1) parte-hartzaileen 16 komentarioetan oinarrituz, profesional guztiek aipatu zuten ez zutela antzeko protokolorik ezagutzen, hiruk soilik beraien espazioko protokoloa ezagutzen zuten baina norberaren ekimenarengatik eta inork ez zuen kideekin landu.

Bigarren azpikategoriari dagokionez (#Protocolos2) parte-hartzaileen 17 komentarioetan oinarrituz soilik 6 parte hartzailek ezagutzen zuten eta norberaren ekimenarengatik.

“A pesar de trabajar en un ámbito en el que entro en contacto con menores que podrían estar en riesgo, apenas he recibido formación al respecto, y además tampoco he tenido información a mi alcance. No he tenido conocimiento previo de los protocolos de la CAV (...)” (8. parte-hartzailea)

Hirugarren azpikategoriari dagokionez (#Protocolos3) parte-hartzaileen 15 komentarioetan oinarrituz, parte-hartzaile guztiek adierazi zuten ez zitzaizela baliagarri suertatzen. Laugarren azpikategoriari dagokionez (#ProtocolosEnRed4) parte-hartzaileen 15 komentarioetan oinarrituz, gehienek informazio elkartruckerako

erabilgarria ikusten zuten, sare bezala hobekuntza proposamenak egiteko edo bakoitzak bere eremu profesionalean protokolo propioen sorrera bultzatzeko.

“(…) Esto es, está claro que el protocolo de la CAV es insuficiente (…) puede servir como base para crear protocolos propios en cada centro de estudios, que incluyan planes de formación, tanto para profesores como para alumnos, términos de actuación (tal y como aparecen en los dos protocolos (...)). Estos protocolos deberían ser creados por una comisión (...) con el asesoramiento de la red.” (13. parte-hartzailea)

Amaitzeko azterketa kuantitativoari dagokionez, lehenengo itemaren bitartez ikastaroak parte-hartzaileen % 94,6 igurikapenak bete zituela adierazi zuten. Bigarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 100 adierazi zuten “El ASI en datos” modulua egokia eta beharrezkoa den informazioa eskaintzen zuela. Hirugarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 97,3 “Más allá de la justicia” modulua egokia eta ondo enfokaturik zegoela adierazi zuten. Laugarren, bosgarren eta seigarren itemei dagokionez parte-hartzaileen % 100 “Figura protectora”, “¿Podemos prevenir el ASI?” eta “Protocolos de actuación” moduluak egokiak eta ondo enfokaturik zeudela adierazi zuten. Zazpigarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 91,7 plataforma argia eta erabilerraza zela adierazi zuten. Zortzigarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 97,3 material didaktikoak egokiak zirela baloratu zuten. Bederatzigarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 94,6 ikus-entzunezko materialak egokiak zirela adierazi zuten. Hamargarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 97,3 idatzizko materialak egokiak zirela adierazi zuten. Hamaikagarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 95,6 material osagarriak egokiak zirela adierazi zuten. Hamabigarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 100 sare ikuspegia oso egokia ikusi zuten. Hamahirugarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 94,4 ikastaroan zehar sarea erabilgarria suertatu zitzaizela adierazi zuten. Hamalagarren itemari dagokionez parte-hartzaileen % 56,7 bikain baloratu zuten formakuntza eta % 43,2 oso ongi. Amaitzeko hamabosgarren itemari dagokionez % 100 formakuntza ezagun edo interesdunei gomendatuko liekeela adierazi zuten.

#### **4. Ondorioak**

Nahiz eta umeekiko abuso sexualak uste baino maizago gertatzen diren, oraindik ere tabua izaten jarraitzen dute. Arrazoi ezberdinak direla medio kasu gehienetan ez da salatzen eta eskoletan edo irakasleen formakuntzan gutxi lantzen den gaia da. Hori ondorioztatu daiteke, behintzat, lan honetarako egindako azterketan. Ikusi ahal izan dugunez HASari buruzko formakuntza beharra dute umeekin lan egin ohi duten profesional ezberdinek, horien artean aipagarriak dira irakasleak eta irakaslegaiak.

Baina, Jardunaldien inguruan sortatuko eztabaida eta gogoeten inguruan, eta inkestaren bidez egindako diagnostikoan ageri den beste datu interesgarri eta deigarria da, formakuntzaz gain partehartzaileek sostengu sare baten beharra ikusten zutela.

Horri aurre egiteko bide txiki bat zabaldu nahian diseinatu eta garatu zen online ikastaroa eta sareari lehen oinarriak jartzeko ikastaro barruko foroa, “Gure sarea” izenaren bidez ezagutarazi zena. Ikastaroari lotuta esan beharra dago parte hartzaileen kopuruak gaiaren inguruan dagoen interesa nabarmentzen duela. Horretaz guztiaz gain, aipagarria da baita ikastaroan parte hartu duten pertsonen asebetetasun maila ere altua izan dela, bertan landu diren gaiak HAS-en inguruko oinarria ematen zutelako. Datuetatik hasita, hau da, sensibilizaziotik prebentziorako bidaia egin da ikastaroan. Baina protokoloak eta legediak aztertzeaz gain, HASaren ondorioak bizi dituzten pertsonen emozioak, beharrak eta zailtasunak ere agertu dira, horra hor, abusu sexualak jasan dituzten umeen amak edo haur eta gaztetxo hauekin lan egiten duten irakasleen kasua.

Bestalde, ondorioetan ezin ahaztu dezakegu, arestian aipatutako, “Gure sarea” atalak izan duen eraginkortasun maila altua. Parte hartzaileek era aktiboan hartu dute parte, eta beraien artean ematen zen heterogeneotasunak ekarpenen aberastasuna gehitu du. Gertatutako eta sortutako gogoeta eta harremanen artean aipatzekoak dira ondorengo ekintzak: alde batetik HASaren inguruan material ugari elkarbanatu dela, horrek formakuntza are eta globalagoa egin du. Beste alde batetik #PrevencionEnRed5 6. parte-hartzailearekin apirilaren 26an sortutako elkarriketza dela medio, 2018/2019 ikastartureako EAE-ko irakasleentzako formazio ikastaro bat antolatzeke proiektua sortu dela.

Aipatutako guztiagatik Berrikuntza proiektu honen eraginkortasuna frogaturik geratzen da. Proiekturako hitz egin behar izan zen aditu guztiek adierazi zuten askotan haur hezkuntza garaian detektatuko abusu sexual kasuak laguntza terapeutiko txikia behar izaten dutela, helduarokoan landutakoekin alderatuz batez ere (subuespenak salbu). Lan honetan aurkezten den eskuhartzeen bitartez prebentzioa lantzeko baina batez ere haur hezkuntzako garairako detekzio goiztiarra emateko baliabide ugari eman dira.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak<sup>1</sup>

- Aguilar, Marta (2009). Abuso sexual en la infancia. *Anales De Derecho*, 27, 210-240. 2017/03/20an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/AtSL1H>
- Baita, Sandra eta Moreno, Paula (2015). Abuso sexual infantil. Cuestiones relevantes para su tratamiento en la justicia. *Unicef*, 1, 285. 2017/03/20an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/FALDz1>
- Borraz, Marta (2017ko apirilaren 25a). La UE sospecha que España vulnera el interés superior del menor en la investigación de abusos sexuales. *El Diario*. 2017-04-27an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/wx1vyx>
- Botere Judizialaren Komunikazioa (2016ko ekainaren 14a). El Tribunal Supremo constata que la proporción de falsos relatos de abuso sexual infantil por parte de las víctimas es muy reducida. *Poder Judicial España*. 2017/01/02an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/sOcdcq>
- Carbajal, Mariana (2010ko maiatzaren 1a). Entrevista a Irene Intebi, experta internacional en prevención del abuso sexual infantil. *ISPCAN*, 2017-01-27an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/oGuvbE>
- Dora, Graciela (2016). *Niñas y niños en la justicia: abuso sexual en la infancia*. Ituzaingó: Maipue.
- Echeburúa, Enrique eta Guerricaechevarría, Cristina (2000). *Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores. Un enfoque clínico*. Barcelona: Planeta.
- Europa Press (2017ko urtarrilaren 10a). España registra más de 10 denuncias diarias por agresiones sexuales a menores. *Europa Press*, 2017-02-02an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/8G2yI5>
- Eusko Jaurlaritzak (2016). *Hezkuntza-arloko prebentzio-eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratatu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretakako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzak eta koordinazioak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.
- Guerricaechevarria, Cristina (d.g.). *El abuso sexual en la infancia* [PDF dokumentua]. 2017-01-10an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/4ZdFhr>
- Horno, Pepa, Santos, Ana eta Molino, Carmen (2001). *Abuso sexual infantil: manual de formación para profesionales*. Madrid: Save the Children España.
- Intebi, Irene (s.f.). *Estrategias y modalidades de intervención en abuso sexual infantil intrafamiliar*. Santander: Gobierno de Cantabria.

- Intebi, Irene (2011). *Abuso sexual infantil: en las mejores familias*. Buenos Aires: Granica.
- Lameiras, María, Carrera, María Victoria eta Faílde, José María (2008). Abusos sexuales a menores estado de la cuestión a nivel nacional e internacional. *Revista d'Estudis de la Violencia*, 6, 1887-3545.
- López, Félix (2014). *Los abusos sexuales a menores y otras formas de maltrato sexual*. Madrid: Síntesis.
- Muela, Alexander (2007). *Hurrei emandako tratu txarrak: atzematea, jatorria eta ondorioak*. Bilbo: UEU.
- Naredo, María, Orjuela, Liliana eta Rodriguez, Virginia (2012). *La justicia española frente al abuso sexual infantil en el entorno familiar*. Madrid: Save the Children.
- Naredo, María (2017ko otsailaren 19a). Desafíos de la protección de los derechos de niños y niñas víctimas de violencia desde el marco de derechos humanos. *III Jornadas de protección a la infancia y adolescencia txostenean. Abuso sexual: prevención, detección e intervención*: Fundación Xilema, Iruña.
- Observatorio de la Infancia (2008). *Protocolo básico de intervención contra el maltrato infantil*. Madrid: Gobernu espainiarra.
- Pereda, Noemí (2016). ¿Uno de cada cinco?: Victimización sexual infantil en España. *Papeles del Psicólogo*, 37(2), 126-133. 2017-01-10an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/cDa82p>
- Polo, Pilar (2017ko maiatza). Memoria, olvido, relato y reconocimiento en víctimas adultas de abuso sexual en la infancia. E., Echeburúan (Presidentea). *Memoria trauma e identidad personal*. Txosten zikloan aurkeztua. Jakiunde, Donostia.
- Pulido, Cristina eta Flecha, Ramón (2009). Actuaciones globales para la prevención de abusos a menores. *Avances en supervisión educativa*, 11, 1-13.
- Sevilla, María (2016ko abenduaren 13a). Abusa de ti, pero es tu padre. *Rompiendo el Secreto del Abuso Sexual Infantil, una aproximación a la prevención txostenean*: Gure Sarea Elkarte, Leioa.
- Sharma, Madi (2011). Dictamen del comité económico y social europeo sobre el tema: Medidas preventivas para la protección de los niños contra los abusos sexuales. *Diario Femenino*, 2017-02-02an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/eex5nJ>
- Urdinez, Micaela (2017ko urtarrilaren 30a). Abuso sexual infantil: hubo 507 denuncias en los últimos tres meses. *La Nación*, 2017-02-02an hartuta, hemendik: <https://goo.gl/9l4u1C>